



PLENTZIAKO BEGIRALEEN LAN -POLTSA 2011. Oinarriak

Kaixo lagun,

Urtero bezala “PLENTZIAKO UDA 2011” prestatzen ari gara. Egitasmo hau aurrera eramateko hezitzaileak/ begiraleak behar ditugu. Horregatik, parte hartzeko interesik baduzu, izena ematera gonbidatzen zaitugu.

Adi irakurri ondorengo azalpenak. Zurekin kontaktzea gustatuko litzaziguke!

ESKAINTZA

1.- UDALEKU IREKIAK:

- 2011eko uztailaren 5etik abuztuaren 26ra arte.
- 5-11 urte bitarteko haurrek parte hartzen dute.

2.- LANALDIA: astelehenetik ostiralera goizeko 10:30etik 13:30ak arte.

Egun osoko irteera bat hilean. 10:00etatik -18:00etara

Soldata: - Begiraleak: *Bizkaiko Interbentzio Sozialeko hitzarmenaren* arabera.

3.- BALDINTZAK:

- 18 urte izan edota lanaldia hasi baino lehen betetzea.
- Euskara maila ona izatea.
- Aisialdiko Begirale agiria edo Magisteritza, pedagogia, psikologia, eta gizarte hezkuntza ikasketaren bat egiten aritzea edo Heziketa Zikloak: Kirol monitoretza edota Gizarte kultur sustapena.

4.- IZENA EMATEKO EPEA: Postaz edo helbide elektroniko bidez ere egin dezakezu. Kontutan hartu, eskatzen diren agiriak jasotzeko epea martxoaren 25ean bukatzen dela.

- NOIZ: martxoaren 21etik 25ra arte.
- NON: PLENTZIAKO GOÑI PORTAL KULTUR ERAIKINEAN, kale barria 2. Plentzia.

AURKEZTU BEHAR DUZUNA:

- Izen-emate orria bete eta bertan lanpostu honetarako zure meritua eta baliabideak aipatu.
- Zure Kurrikuluma eguneratua eta ziurtagirien kopia bat.

KONTUAN HARTU BEHARREKOA

- MARTXOAREN 21etik MARTXOAREN 25ra arte: Izen emate epea.
- MARTXOAREN 28etik 31ra: Elkarrizketa pertsonala.
- APIRILAREN 6an: Onartuen behin-behineko zerrendak.
- APIRILAREN 7 eta 8an: Erreklamazioak (10etatik 13etara).
- APIRILAREN 13an: Onartuen behin betiko zerrendak.
- EKAINAN zehazteke: Plangintza bilera koordinatzaileekin.

Informazio gehiago: GOÑI PORTAL KULTURALA: Kale barria 2, 48620 PLENTZIA

☎ 94 677 55 41

✉ kultura.plentzia@bizkaia.org

ludoteka.plentzia@bizkaia.org

www.plentzia.org